

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Kukuarena jo

KIRATS EDERRA botako zuen balearen sainaz betetako lanparak metxa piztua zuenean... Gaur egun Europan gasolina eta gasolio usaina den antzera, garai batean arrain koipearena izango zen nagusi. Argiontzi haien luxua arropan zeramaten arrain usainarekin neurtuko zuten...

Argiontzi edo lanpara haien metxa edo mukia *Lychnis* generoko landareen zortinarekin egiten zen. *Lychnis* hitzak grekoz argia esan nahi duela nioen lehengoan eta *Lychnis* hitzak lanpara edo argiontzi, nonbait. Kandela-metxak ere egin izan omen dira zorten horiekin. Genero horretako *Lychnis* jendearen artean geurean bat da ezaguna: *Lychnis flos-cuculi*, kukuak jotzen dueneko lorea duena, alegia.

Isuri atlantikoko sega-belaze hezeetan ugaria da, ikuseraza: belar gainean ageri dira, luxe, lore arrosa politak. Tximeleta eta erle ugarik gustuko dute. Eztarriko korapiloak leuntzen ari da eta egun hauetakoren batean kukuka hastekotan da kukua. Haren armonian loratuko da euskarazko izenik topatu ez diodan *Lychnis flos-cuculi*. Kukulorea esango nioke nik.



Lychnis flos-cuculi, kukulorea izan liteke euskaraz.

KRISTIAN PETERSEN-CC BY SA

Kukuaren kukukada mugarrria da gure paisaia kulturallean. Kukupraka, kukubelar, kukuporro edota kukulore deitzen zaie *Digitalis purpurea* landare magikoari, *Papaver rhoeas* lo-belarrari, *Digitaria sanguinalis*

oilar-buztanari, *Pulicaria dysenterica*-ri eta *Aquilegia vulgaris*-eri. Adarrak jarri dizkioten arrari ere kukua deitzen diogu euskaraz; adarrak jarri dizkiote ala kukuarena jo diote? Udaberriko odol berri-tzearekin kukuarena gehiago jotzen ote den galdetu diot lagunari eta erantzuna: ez adarrik jo!

Kukuak egunez jotzen badu ere, gaez besterik ibiltzen ez diren tximeleta batzuek ere *Lychnis* izena dute.

Tximeleta hauen sitsak udaberrian kukulorearen hostoak janez hazten eta metamorfizatzen baitira. Gero udan azarenak jango dituzte. Kukuak jotzean loratzen den kukuloreak mantentzen ditu bizirik gero azari burua egiten utziko ez dioten sitsak. Sitsak jotako burua. Hau buruhaustea! Eta ez da azaren azpiko orria!



JAKOBA ERREKONDO

Txerto sasoi da

Txertatzea, mentatzea, eztitzea edo enpeltatzea deitzen dugun lana egiteko sasoi-tako batean gaude. Neguaren amaieran, urte berriko izerdi berriaren etorreran txertatzen dira fruitu arbolak. Zotzezko txertaketa da oraingo hau.

Txertatzearekin betirako elkarrekin bizi beharko duten bi landare elkartzan ditugu: azpiko mentu-oina eta gaine-ko barietatea. Argazkikoa gereziondoa da. Nabarmena du txertoaren kozkorra. Bi landare izaki, elkartzan dituen zauria muga bat da eta janaria alde batean pilatuta hura askoz gehiago hazten da beste alde baina. Beste txerto batzuetan alderantzizkoa gerta daiteke, beheko alde gizenagoa izatea, alegia. Zauri-muga hauxe da arbolak fruta gehiago ematearen arrazoi-tako bat, landarea erdipurdi bizi da eta bereak egingo duenaren beldur, badaezpada, fruta emango du.